

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: GORKA AZKARATE
ARGAZKIAK: DANTZAN.COMMozorroaren
babesean

Garizuma aurreko epealdia dira, teknikoki, inauteriak. Mozorrotzeko ueña, festa eta zalaparta nagusi diren garaia. Mozorrotzean, bestela egingo ez lukeena egiten omen du pertsonak. Esan izan da, ordea, mozorrotzean ezagutzen dela pertsona nolakoa den, bere portaera naturalagoa, benetakoagoa bilakatzen baita. Euskal Herrian herri gehienetan ospatzen dira inauteriak. Zenbait herritan, ordea, tradizioa oso errotua dago eta bertako inauteriek egiten dute herria ezagun. Horieta bazueta osteratxo egiteko garai aproposena iritsi da.

Inauteriek ez dute, berez, data finkorik, eta beste hainbat jai egunen moduan –Aste Santua, Korpus eguna, Mendekoste eguna...–, Eliza Katolikoaren egutegi liturgikoari loturik daude. Egutegi horren berezitasuna ilargiaren zikloi loturik egotea da. Horrela, udaberriko lehen ilargi betearen ondorengo igandea Pazko igandea izango da eta horren arabera kokatuko dira gainerako jai egunak egutegian. Inauteriei dagokienez, erraz zehaztu daitezke haien data Pazko igandea noiz den jakinez gero, Inauterien azken eguna –Hausterre eguna– eta Pazko igandearen artean 40 eguneko tarte, Garizuma, baitago.

Honenbestez, urtarrilaren hondarean eta otsailaren hasieran izango da aurten inauterien tarte; goiz, beraz, oso goiz. Kandelaria, San Blas, Santa Ageda eta Inauteriek bete-betea tala egiteraino, aspaldiko partez. Urtarrilaren 31n izango da Ostegun Gizena, eta hortik aurrera, Garizuma aurreko azken zalaparta

egunak, otsailaren 5ean ospatuko den Inauteri asteartea eta 6ko Hausterre egunera arte.

Zalduondo (Araba)

Zalduondokoa da Arabako inauteririk ezagunena eta ondoen gorde dena. Markitos da pertsonaia nagusia eta haren inguruan antolatzen da festa. Goizean, gazteek herrian barrena eramaten dute Markitos, txistularien laguntzaz. Eguerdian, herriko plazan, sei bat metrora zintzilikatzen dute, eta arratsaldean porrerok –ziripoten oso antzeko pertsonaia– jantzita Markitos eskegi eta berriz ere herrian zehar eramaten dute idiek tiratutako gurdi batean, epaitu eta hil baino lehen.

Ehun biztanle inguru dituen Aguirango eskualdeko udalerria da Zalduondo; Arabako Lautadan kokatua, beraz. Aizkorri-Aratz mendilerroak mugatzen du iparraldean eta Entziak hegoaldean. Mendi txango paregabeak egin daitezke inguruotan, mendi

malkartsuak igoz zein pagadi zoragarrietan ibiliz. Herriak berak, berriz, ondare arkitektoniko paregabea du. Horren adibide dira, besteak beste, eskualdeko etnografia museoaren kokaleku den Lazarragarren jauregia –XVI. mendekoa–, Larreatarren etxea –XV.ekoa– edo Udaletxeari erantsita dagoen Zeledon ezagunaren etxea, zeinetan Gasteizko jaietako ikurra den pertsonaia bizi izan zen. Ezin da ahaztu, bestalde, antzina Astorga eta Bordele lotzen zituen Erdi Aroko galtzada ezaguna, San Adriango pasabidean barrena Gipuzkoaratzen dena.

Altsasu (Nafarroa)

Altsasuko momotxorroen irudi kitzikagarria oso ezaguna da Euskal Herri osoan. Gaur egun, nekazari giroko festa hori hiritartasunean girotuta dago, musika eta koreografia aldetik egitura egokia emanez. Artile eta adarrak jantzita, eta eskuak eta aurretik daramaten oihala animalia odolez zikinduta dituztela herria zeharkatzen



Euskal Herriko inauterien egutegia

Ondorengoak dira 2008ko Inauterietako data garrantzitsuenak:

Urtarrilak 31: Ostegun Gizena.

Otsailak 1: Ostiral Mehea .

Otsailak 2: Inauteri Larunbata edo Zaldunita bezpera.

Otsailak 3: Inauteri Igandea edo Zaldunita.

Otsailak 4: Astelenita.

Otsailak 5: Inaute Asteartea edo Asteartita.

2008ko datak goiztiarrak izanik herri batzuetan aldaketak egin behar izan dituzte. Altsasun, esaterako, inauteria astebete atzeratzea erabaki dute, eta Garizuman ospatuko da, otsailaren 12an. Donostiako kaldereroek eta Iñude eta Artzaiek ere data aldatu beharra izan dute. Kandelaria –otsailaren 2a– osteko asteburuan izatetik, urtarrilaren hondarreko asteburura egin dute jauzi, kaldereroek 26ra

eta Iñude eta Artzaiek 27ra.

Hona hemen, beraz, 2008ko Inauterien egutegi orokorra:

Urtarrilak 26, larunbata

Donostia - Kaldereroak.

Tolosa - Kaldereroak.

Lizartza - Puska biltzea baserrietatik.

Eibar – Koko eskea eta koko dantzak.

Urtarrilak 27, igandea

Donostia - Iñude eta Artzaiak.

Lizartza - Dantzariak herriko kaleetan eta plazan.

Irun - Iñude eta Artzaiak.

Urtarrilak 28, astelehena

Zubietako joaldunak Iturenera.

Urtarrilak 29, asteartea

Iturengo joaldunak Zubietara.

Urtarrilak 31, Ostegun Gizena

Errenteria - Azeri-dantza.

Otsailak 1, Ostiral Mehea

Eibar - Kaldereroak.

Otsailak 2, Inauteri Larunbata edo Zaldunita bezpera

Behobia – Puska biltzea.

Durango - Surrandiak.

Galdakao - Altsasuko Inauteria (Andra Mari Taldea)

Bera - Kaldereroak.

Agoitz - Cascabobos eta Mascaritak.

Otsailak 3, Inauteri Igandea edo Zaldunita

Abaltzisketa – Txantxoak .

Amezketak - Talaik (baserriak).

Antzuola - Sorgin dantza.

Aretxabaleta - Txino Dantza.

dute. Momotxorroen eta haien inguruan irteten diren pertsonaien agerraldia goldatze erritual baten irudikapena da. Trama horren bidez, lurraren oparotasuna eskatu eta azienden eritasunak galarazi nahi dituzte.

Bidegurutzeko garrantzitsu batean dago Altsasu, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoak muga egiten duten Arbarrain (1115 m) menditik oso hurbil. Aizkorri mendilerroaren berezko luzapena diren Altzania, Urbasa eta Aralar mendilerroak oso gertu izanik, natur gune paregabeen kokatuta dago, errepide sare gris erraldoitik harago. Esan gabe doa, beraz, mendi txango paregabeak egin daitezkeela Altsasu inguruan. Urbasako mendatera igo eta bertako soilgune zein pagadietan paseatzea ohikoa da bertako zein kanpoko hainbat eta hainbat bisitarirentzat. Urbasako talaletatik Arabako Lautada eta Nafarro-

ako Sakana menderatuz txangozaleak duen ikuspegia ez da erraz ahaztekoa.

Lantz, Ituren, Zubietta (Nafarroa)

Nafarroako baserri giroko inauteri guztietan Lantzekoa da, agian, folklore aldetik aberatsena eta esanahi handiena duena. Anueko haranean dagoen herri txiki horretan, Miel Otxin gaizkilearen bahiketa, epaiketa eta sutan erretzea antzezten da inauteri asteartero. Bi hitzetan, gaizkiaren eta ongiaren arteko borroka irudikatzen da.

Miel Otxin da, aipatu moduan, Lantzeko inauteriko pertsonaia nagusia. Inguru suntuatu zuen gaizkilea da Miel Otxin, hiru metroko gurutze batean kateaturiko panpina batek irudikatua. Horrez gain Ziripot, beronen atzetik doazen Zaldikoak, Arotzak eta Txantxoak ere Lantzeko inauteri ikusgari horretako pertsonaiak dira.

Zubietta eta Iturengo joaldunen jarduna ariketa izpiritual sakona da; sinbolismoak dioenez, joaren zaratarekin izpiritu txarrak uxatu eta lurrean dauden indarrak iratzartzea bilatzen dute. Lehen egunean, Zubietakoak Iturena joaten dira, eta bigarrean, beriz, alderantziz. Binakako ilaran, une ikusgarriak sortzen dituzte erdi bidean bi herrietako joaldunak elkartu eta elkarrekin abiatzen direnean.

Ituren eta Zubietta Malerreka haranean daude, Ekaitza eta Mendaur mendien magalean. Paradisua da inguru hau ibiltarientzat, natur gune berdingabea mugatzen baitu haranak. Aipagarria da Mendaur mendiaren gailurrean dagoen Trinitateko baseliza ederra. Trinitate egunean –Inauteriek bezala data aldakorra du horrek ere, baina maiatza amaieran edo ekaina

Ezkerrean, Altsasuko inauteriak. Eskuman, moztarok Zubietan; joaldunak ez dira Ituren eta Zubietako inauterietako pertsonaia bakarrak.



Mundaka - Atorrak.
 Markina – Zaragi-dantza.
 Uztaritze – Errobiko Kaskarotak.
 Zalduondo – Markitos.
 Lesaka - Zaku-zaharrak.
 Azpeitia - Elegante eguna.
 Gernika - Marrauen soka-dantza.
 Bera - Iñude eta Artzaiak.
 Donibane Garazi - Kabalkada eta Liberti-
 mendua.

Otsailak 4, Astelenita

Amezketeta - Talaik (kaleak).
 Lesaka - Fraindarrak arraultze-arraultze
 eskean.
 Bera - Zingar-arraultze eskea.

Otsailak 5, Inaute Asteartea edo Asteartita

Arizkun - Sagar-dantza.
 Lekeitio - Estudiantina.

Lantz - Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko, txatxoak
 eta ferratzaileak.
 Unanu - Mamuxarroak.
 Uztaritze - Zanpantzar.
 Kanpezu - Toribio.
 Lesaka - Goitarrak arraultze-arraultze eskean.
 Agoitz - Cascabobos eta Mascaritak.
 Goizueta - Zahagi-dantza.

Otsailak 12, asteartea

Altsasu - Momotxorroak.

Zuberoako maskaradak

Zuberoako Maskaradei dagokienez, hiru hila-
 bete inguruko iraupena dutenez, ez dira Inau-
 teri egunen menpeko. Atharratze eta Alozeko
 gazteen gain dago aurtengo maskarada
 Zuberoan zehar herriz herri eramateko eran-
 tzukizuna. Zazpi urte daramate prestaketa
 lanetan, maskarada azkenekoz prestatu zute-

netik, alegia. Urtarrilaren 13an abiatu zen
 Atharratzen bertan apirilera arte luzatuko den
 emanaldi sorta. Hona hemen datak:

Urtarrilak 13, igandea: Atharratze.

Urtarrilak 20, igandea: Gotaine.

Urtarrilak 27, igandea: Ligi.

Otsailak 3, igandea: Altzürükü.

Otsailak 10, igandea: Ürrüstoi.

Otsailak 17, igandea: Muskildi.

Martxoak 2, igandea: Gamere.

Martxoak 8, larunbata: Maule.

Martxoak 16, igandea: Arrokiaga.

Martxoak 23, igandea: Barkoxe.

Martxoak 30, igandea: Aloze-Ziboze-
 Onizegaine.

Apirilak 6, igandea: Altzai-Lakarri.

Apirilak 13, igandea: Sohüta/Hoki.

Apirilak 20, igandea: Urdiñarbe.

Apirilak 27, igandea: Santa Grazi.

Iturria: www.dantzan.com

hasieran izaten da— erromeria goxoa
 egiten da han. Lantz, berriz, Belateko
 mendatearen Iruñeranzko isurialdean
 kokatzen da, haran nagusitik mendial-
 dera hedatzen den haran txikian, Saioa
 mendi erraldoiaren magalean.

Zuberoako maskaradak

Zuberoako maskaradak euskal inau-
 terien baitan topa daitezkeen agerraldi-
 rik berezietakoak dira. Beraien jato-
 rria ezezaguna den arren, nahikoa argi
 dago kristautasunaren aurreko garaie-
 tatik datozela. Maskaradako zenbait
 pertsonaiek naturako elementuak iru-
 dikatzen dituzte —gathuzainak katua
 eta zamaltzainak zaldia, esaterako—.
 Bitan banatzen da maskarada: gorriak
 eta beltzak. Dantzari finenak dira
 gorriak, ordenaren ordezkariak, eta
 txerreroa, kantiniersa, gathuzaina,
 zamaltzaina eta entseinaria dira aipa-

garrienak. Maskarada beltzak, bestal-
 de, ordenarik eza, zikinkeria eta zital-
 keria ordezkatzeko ditu. Pertsonaia fin-
 korik ez duen arren, buhamiak,
 txorrotzak, kauterak, eskaleak, erru-
 mesak eta beste hainbat agertzen dira
 gehienetan. Euren helburua maskara-
 da gorria zirikatzea da uneoro.

Maskarada egun osoko ekitaldia da;
 goizean, pertsonaiek herriko jendeak
 jarritako “barrikadak” gainditzen saia-
 tzen dira, horien aurrean dantza egi-
 nez. Arratsaldean, jarraipena izan ohi
 du goizean hasitako ikuskizunak.
 Zuberoako herri bati egokitzen zaio
 urte bakoitzean maskarada antolatzea,
 eta estreinako saioa beren herrian
 eskaini ostean, Zuberoako herri asko-
 tan barrena egingo dute itzulua, igan-
 dero maskarada antzeztuz.

Zuberoako lurraldea aipatzen
 hasita, zaila da herri edo ingurune

konkretu bat besteen gainetik
 nabarmentzea. Zuberoa bere osota-
 sunean baita eder, misteriotsu eta
 erakargarri. Hegoaldean 2000
 metroko langa gainditzen duten
 gailur lerdnetatik hasi eta iparral-
 deko lautadaren lasaitasunera.
 Arbailako basotik, Holtzarteko
 mendi zintzurra. Mila txoko ezku-
 tatzen ditu Euskal Herriko herrial-
 de txikiak.

Elkarrengandik oso hurbil dauden
 Atharratze eta Aloze herriak dira
 aurtengo maskaraden antolatzaile.
 Atharratze, bere kokapen egokia dela
 medio, herrialdeko bigarren merkatal
 gune garrantzitsuenak da, eta ingur-
 ruan egin daitezkeen txango gehie-
 nentzat abiapuntu ezin hobea. Mas-
 karada garaitik kanpo ere
 gomendagarria da zinez Zuberoa
 sarritan ahaztuari bisita egitea. ■

Ezkerreko argazkian, Lantzeko inauteria. Eskuman, zuberotar aitzindariak, barrikada dantzatzen Gameren.

